


Astekaria

Plazatik Karakatera 30 minuturen azpitik



BARRE
elgoi

Abenduaren 10a arte %10eko deskontua ESKOLARAKO MATERIALEAN

Hemendik aurrera
zure ametsetako **BIDAIAK**
Classy n aurkitako dituzu.




Elgoibartik mugitu gabe! San Frantzisko 56 - Tel./Faxa: 74 02 40 - 20870 ELGOIBAR

Softlan

Pedro Muguruza, 13
20870 ELGOIBAR

☎ **74 43 61**

ANALISIA ETA PROGRAMAZIOA



Zeren zain zaude?




**Gestio Komertziala erraz eraman daiteke informatikari esker.
Dirua eta denbora aurreztuko dituzu.**

**Standarra eta neurrira egindako softwarea • Sare lokalak
Hardwarea eta mantenua • INTERNET eta Web orrien diseinua**

PROMOCIONES MENDAROBAL S. L.

450 m²ko lorategia duten
BI ETXE UNIFAMILIAR
eraikiko ditugu Mendaron

☎ **76 27 58**



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegia, Xabier

Ansola, Nekane Aranburu,

Pello Arrieta, Juan Mari

Elustondo, Ina Garagarza,

Ane Goikoetxea, Amaia

Gorostiza, Juanito

Gorostiza, Maite Iriondo,

Edu Iriondo, Alberto

Iriondo, KOKOE, Imanol

Larrañaga, Javi León, Juan

Mari Mendizabal, Milagros

Oiarzabal, Benantzio

Otaegi, Aitor Zabaleta,

Julen Zabaleta, Deñe

Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.800 ale

LEGE GORDAILUA:

SS-1.038/92


ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Ezberdinak gara, berdinak gara

1948. urteko abenduaren 10ean Nazio Batuen batzarre orokorrak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu eta aldarrikatu zuen. Orduetik gaur egunera ia mende erdi igaro da eta denok egiazta dezakegu deklarazio horretan agertzen diren puntu gehienak (guztiak ez esateagatik) ez direla betetzen.

Ruanda, Zaire, Sahara... eta hainbat tokitan gertatzen ari diren bidegabekeriak ikusita, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsal horren puntu batzuk (30 baitira eta hemen ez dugu guztiak aztertzen hasteko tokirik) berregintzen hasteko ordua izan daiteke:

1. artikulua honela dio: "Gizaki guztiok jaiotzez berdinak gara bai eskubide, bai duntasan bai eta askatasunari dagokionean ere..."

Telebista edo irratia jarri edo egunkaria irakurtzen dugun guztietan, egunero ikus dezakegu mundu honetan berditasun hori teorikoa bakarrik dela. Ez ditu eskubide berdinak mendebaldeko estatu batean edo Afrikako edozein herritan jaiotako batek.

2. artikulua arabera, "Pertsona guztiak deklarazio honetan agertzen diren eskubide eta askatasun guztien jabe dira, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko, nazio edo beste edozein baldintza edo izaeragatik inolako bereizketarik egin gabe".

Puntu honetatik gauza ugari atera ditzakegu. Adibide bat jartzeagatik, Txinan, esate baterako, ez da gauza bera neska edo mutila jaiotzea. Estatuak seme-alaba bat baino gehiago izatea debekatu egiten du superpopulazioa dagoelako eta lanerako eskubidea gizonak bakarrik dutenez, askotan neska jaiotzerakoan baztertuak izaten dira

edo hil egiten dituzte.

Azalarekin loturiko beste adibide bat ere topa dezakegu: gure gizartean beti ikusi izan da beltza zurien azpian egon behar dela. Gainera, dirudienez, estatubatuar baten bizitzak Senegaleko batenak baino gehiago balio du. Atlantian, esate baterako, azken Joko Olinpikoetan izandako atentatuaren ondorioz pertsona bat hil zen. Mundu osoa ikaratu zen baina urte askotan, eguneroko ogia da Afrikako gerren ondorioz hiltzen diren pertsonen berri izatea, eta inork ez du ezer egiten. Goman (Zaire) izandako eraso batean 5.000 pertsona baino gehiago hil ziren (ez da gertatzen den lehen aldia eta, seguruenik, ez da azkena izango), horietariko 4, estatu espainiarreko misiolariak ziren eta, hori ikusita, gure buruzagi politikoak zerbait egiteko prest agertu dira (orain arte ez da ezer egin).

4. artikulua dioenez, "morrontza eta esklabutasuna debekatuta daude".

Halere, oraindik toki askotan (Afrikan batez ere) esklabutasuna indarrean dago.


Bukatzeko, 7. artikulua arabera, "legearen aurrean denok berdinak gara".

Puntu hau zalantzan jarriko dugu beste adibide batekin: Felipe González Estatuko lehendakari ohiarekin gertatutakoak argi eta garbi lagatzen du guztiok ez garela berdinak legearen aurrean. Izan ere, Auzitegi nagusiko 2. gelak Gonzálezek Gal auzian Auzitegiaren aurrean ez deklaratzeko erabaki zuen.

Pentsadore ospetsu batek esan zuen bezala, "Gizaki oro berdin jaiotzen ahala, azken aldia izango da hau". Dena den, "Berdinak gara; ezberdinak gara".

Jabí Leon

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





KEXAK

■ Elgoibartar batek kexa hau azaltzeko eskatu digu: “Jun dan astian, Ur Kontsorzioko Iñigo Elosegik Saneamendu Planari buruz eman zaban hitzaldixan **7 lagun baino ez ginan eon. Lotsagarrixa da** hain jende gutxi jutia Elgoibarren ibaixakin eta kontaminaziuakin daon problemiak. Gainera ez zan Udaletxe-ko inor jun. Eta hori Udaletxetik hitzaldira juteko inbitaziñuak bialdu zitxuztela etxietara. Honez gain, Iñigo Elosegi txalotu nahi dot hitzaldi guztia euskaraz eman zabalako”.

■ Haur baten kexa: “**Domeka arratsaldetako zinea** haurrentzat izanik, ez dot ulertzen zela jartzen dituzten 13 urtetik gorakoentzako pelikulak”.

■ Irakurle batek deitu digu **EROSKIK euskararekiko duen axolagabekeria** salatzen. Bertan jartzen dituzten kartel-txo guztiak erdara hutsean egoten omen dira langile guztiak euskaldunak izanik!



TXALOAK

■ **Txaloak Gelatxorentzat**, Jubilatuen Etxean domeka arratsaldeko dantzaldian lehen baino bolumen aproposagoan jutzen dutelako. Lehen zaratagatik kexatzen zirenak orain txaloak eskaini nahi dituzte.

■ Emakumezko batek deitu digu **Pilar Arriola** txalotu nahi duela esateko. Karakateko igoeran parte hartu duen lehen emakumea izanik, txalotzekoa dela iruditzen zaio.

ESKUTITZAK

Nire herriko banda

Santa Zeziliaren ospakizuna dela eta, Elgoibarko musika talde ezberdinak euren zaindaria goratzeko prest daude. Hauen artean Udal Musika Banda dago. Berrogeita hamar bat lagunez osatutako banda honek hainbat doinurekin gozatzen ditu gure belarriak, Elgoibarko herriarentzat harro egoteko modukoa dena. Oraindik buruan dabilzkit batera eta bestera San Bartolomeetan jo zituzten piezak.

Zoragarria izan zen nire herriko bandaren jardunak nola poztu gintuen San Bartolome egunean Plaza Handian elkartu ginen zaletuok. Beteranoak eta gazteak elkarturik, zuzendariaren batutaren aginduetara kontzertu zoragarria eman zuten. Ez dut ekainean izan zen Banden Alardea ahazterik nahi, Kilometroak 96aren bueltan ospatu zena.

200 musikaritik gora jo zuten elkarrekin. Euskal piezak jo zituzten (oso politak portzierto), arrakasta handiarekin. Ondarroa, Baltierra, Eltziego eta Elgoibarko bandek jo zuten. Musika Banda bat dagoen lekuan kultura eta poztasuna sortuko da. Horregatik uste dut nire herriko bandak funtzio hori betetzen duela, kalejira eta

Herriko Antzokiko kontzertuekin herritarrak alaitzea.

Aurten ere kontzertu bikain bat emango duten esperantza daukat, eta zaletuok poz-pozik geratuko gara. Aipagarriak dira Gabonetako eta Errege Eguneko kontzertuak, bai eta Gabon Eguneko kalejira ere. Esan behar dut zuzendariaren ekimenez, ohiko martzez aparte, Gabon kantak ere jotzen dituztela ibilbidean zehar, guztion gozamenerako.

Elgoibarko herriak daukan bandarekin eta hainbat musika talderekin badu harro egoteko arrazoirik.

Honegatik guztiagatik, Santa Zezilia eguna atarian dugula, zorionak denoi eta bereziki NIRE HERRIKO BANDARI.

P. S.
Musika bandakoa
izandakoa

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Erretratu zahar hau **Vicenta Monjeri** esker eskuratu dugu. Ez dakigu noizkoa den, baina argi dago nahiko zaharra dela. Gezurra dirudien arren, Elgoibarren Kaldereroen Eguna ospatzen ei zen sasoi batean. Erretra-

tuko hiruak Kaldereroen Egunean ohitura den bezala jantzita atera ziren. Euren papera serio hartu zutela ematen du, argazkiko poseetan antzeman daitekeenaren arabera.

Iñaki Konde (†), Jose Mari Monje (†) eta Rakel Gurrutxagak osatzen dute erretratuko hirukotea.

KEMEN Belardenda



Elikadurarekin lagunduko dizugu osasun ezin hobea izan dezazun

Estuasuna, antsietatea, depresioa, lo ezina, tabakismoa, loditasuna, fobiak,... tratatzen laguntzen dugu. Zatoz, ez zara damutuko!

NATUROPATA
Programazio neurolinguistikoa
(Practitioner eta Masterra)

MASAJEA - REIKI

Osatze naturalaren USUI sistema

San Bartolome 25 · Tel: 74 40 31

la 10 m. neurtzen dute bosten artean. Garaiera handiko pertsonak dira. Hiru gizonezko eta bi emakume ekarri ditugu gure artera. Adin desberdinetakoak, ez baita berdina gaur egun 1.80 m. neurtzea edo orain 40 urte 1,70 izatea. Gainontzekoen mediatik gora daude bost elgoibartar hauek eta gaurkoan erreportaia bitxi bat egin nahi izan dugu. Bizitza hain ikuspegi altutik begiratzeak zein eragin duen jakin nahi izan dugu. Eta gauza kurioso dexente kontatu dizkigute.

sabel Alberdik 29 urte eta 1,81 m. ditu. Umetan ere gainontzekoak baino altuagoa omen zen, “nere lagunik minenak beti izan dia oso txikixak”. 1,81 neurtzeak arazoak sortzen ditu arrokekin, “praka gehixenak txorkatileraino ailegatzten jataz”. Eskerrak oinak ez dituen oso handiak, “40xa dakat. Botekin ez dakat problemarik. Igual takoidun zapatatxuak jantziko banitxu desberdina izango litzake”.

Toki batera joaten denean atentzioa deitzen du altueragatik, “altura honekin ezin zera ezkutau”. Behin, supermerkatu batean lanean zegoela, “egunero etortzen zan mutil bat erostera. Egun batian, mostradoretik urten nitzan eta harrixuta geratu zan, ze pentsatzen zaban altillo baten gainian egoten nitzala”. Ligatzerakoan, “txiki-xaua baldin bazan, deskartau eitzen naban. Hala ere, aspalditxik dakat bikotia eta ni baino cm batzuk bajuaua da”. Behin edo behin desiatu izan du txikiagoa izatea, “baina normalian oso harro egon naiz nere alturiakin batez ere inguruan hainbeste entzuten dozunian jendiak nahixaoko lukela altuaua izatia”.

Jaunartzea ala ezkontza?

60 urteko emakume honek, Luzia Arrietak, 1,79 m. neurtzen ditu. Bere gazte denboran Elgoibarko nesken artean altuenetarikoa izan zen. Jaunartzearekin izan zituen arazoak, “lehengusina batek laga zian soinekua. Jendiak nobixia ematen nabala esaten zaban. Akonplejauta laga zian”. Garai hartan dantzaldia izaten zen igandero Plaza Haundian eta usadioa, mutilek neskak dantzara ateratzea, “makina bat aldiz ein naban dantza ni baino txikixauak zian mutilekin. Eurek ez zebe konplejorik eukitzen,

ni arduratzen nitzan gehixo!”. Denborekin bere lagunak hazi egin ziren eta bera bezain altuak ez ziren arren, aldea ez zen horrenbestekoa, “11 urtekin, mezetara juten ginanian oso gaizki pasatzen naban ze beti bestien gainetik geratzen nitzan. Monjak beti esaten zien, ‘anda tiesa Lucía, anda tiesa!’, ze beti makurtuta ibiltzen nitzan”. Luziaren seme-alabak oso altuak dira, “alaba batek 1,80 m. neurtzen dau eta semiak 1,94 m. Baina oin desberdina da!”.

Pike sanao

2,03 m. ditu. Elgoibarko pertsonarik altuena Andoni Rementería izango da seguruen, 22 urteko mutil gaztea. Txikitari, “eta oin ere” behin edo behin “pequeño, jirafa” eta antzeko izenez deitu izan diote, “baina txarrera sekula ez”. Andonik atekin arazo asko izaten ditu, “etxian ohitxu naiz baina kolpe asko jaso ditzut”. Mezularia da eta autoa bere neurriara egokituta dauka, “sillia bajuo eta atzeraino botata, nere atzian ezin da inor jun”. Gizartea ez dago altuen-tzat egokitua, “zinera juten naizenian gaizki pasatzen dot, ez naiz ondo sartzen, hankekin pareko sillia jotzen dot, atzeko jendiari trabarik ez eitxeko lepua makurtu ein bihar izaten dot..”. Saskibaloiko jokalaria izan zen, “Madriren jokatu naban, lelengo Estudiantes-en eta gero BBV-Villalban. Elgoibarren ere jokatu naban baina azkenian aspertu ein nitzan, beti lesiuak...”. Abantaila handi bat izan zuen Andonik altuerarekin, “soldautzatik librau nitzan”. Andonik ez du sekula konplejurik izan, “ez litzaidake inportauko 2,10 m. neurtzia”. Gainera, aitortu digunez, oso altuak direnen artean “pike sanua dao. Batzuetan nere ondolik pasatzen dianian oso

Bizitzari goitik begiratu

altuk dian beste batzuk, burua tentetu eixten dabe”.

Txarolezko oinetakorik gabe

Aitzbizkar-goikoa baserrian jaio zen duela 51 urte. 16 urte zituela 1,86 m. neurtzen zuen eta 103 kilo pisatzen zituen. Soldadutzan 80 kilora jaitsi zen. Bere garaian gizon altua izan zen Jose Mari. “Kumunixuan nere lagun guztiak jun zian txarolezko zapatekin eta neretzako ez zauan tailarik. Amak beste batzuk erosi ziazan eta han ibili zan brillua etara nahixan, baina alperrik”. Gaztetu zenean ere, “ezin izan naban soldautzia bota militarrekin ein ze ez zauan neretzako numerorik. Etxeko zapatekin ein naban soldautzia”. Planta oneko gizona izan arren, “altua izaterakuan beti lepua makurtuta ibiltzen nitzan hainbeste ez deitzeko atentziua, lotsatuta edo. Eta oin geratu ein jata kokotxa”. Gora begiratzan duen une bakarra, “atiak dakan alturia ikusteko izaten da”. Gustura dago bere altuerarekin Jose Mari, “ez gehixo ez gitxio”.

San Ferminetan galdu gabe

Imanol Urainek 30 urte ditu eta askok eta askok ezagutuko dute, Txarriduna jatetxeko sukaldaria baita. 1,98 m.ko altuera du, “7. mailan edo eman naban tiroia ze, lehenon, ni baino altuauak zian neskak bazeuden”. Honek ere oinetakoekin izaten du arazorik handiena, “50 zenbakixa dakat eta beti enkarguz erosten ditxut. Dauana eta kitxo”. Ohea neurritara egindakoa dauka, “luzeran 2,10 m. ditxu eta zabaleran 1,50 m. Ohiak lau biharrian, sei hanka dauzka. Kanpora urtetzen naizenian, hankak beti geratzen jataz ohetik kanpo”. 1,98 m.rekin, “tabernan, sukaldeko kanpantzia alturaz ixo bihar izan genduan eta barrako boteilerua ere bai. Neskak ez dia hain altu ailegatzan eta silara ixo bihar izaten dia”. Berarentzat ez da abantaila izan 1,98 m. neurtzea, “ligatzeko ere, neskak ez jataz belarrira ailegatzan eta tabernetan musikia hain altu egoten danez, beti makurtu ein bihar izaten naiz

ondo entzuteko”. Hori bai, laguntzat primeran etorri da Imanolen altuera, “San Ferminetara joaten geranian ere, ez dao galtzerik, nere burua beti ikusten da eta”. Jendearen gainetik egote horrek badu eragin berezirik, “zelan beti makurtzen ibili bihar zeran jendiari ondo entzuteko, batzuetan nahixao dozu zure airera egon eta obserbatzia. Oso obserbadoriak gera pertsona altuak”. Gainera, berez atentzioa deitzen dutenez ez dute beste ezer egin beharrik, “oso txikixak dianak dia askoz afanosuauak, atentziua deitxu bihar dabelako”.

Goitik behera: Imanol Urain, Andoni Rementeria, Jose M. Aranberri, Luzia Arrieta eta Isabel Alberdi.



AbenduKO AGENDA

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

3, asteartea **HITZALDIA**

“Etxeko landareak eta
loreak”

Hizlaria: Jagoba

Rekondo

Arratsaldeko 7etan,
Kultur Etxean

5, osteguna **TENTAZIOAN** eroriko
zara!!

9, astelehena **MAKILAJE
IKASTAROA**

Irakaslea: Arantxa

Aldazabal

4-6 ordu (abendukoak 9
eta 16)

Arratsaldeko 19:00-21:00

Izena emateko azken

eguna: azaroak 29

Tel. 74 16 26

20, ostirala Gabonetako **BARREN
BEREZIA**

Zein instrumentu jo nahi zenuke?



JOSE M. SAN MARTIN
71 urte, jubilatua

Neri jotia bat ere ez. Entzutia gustatzen jata, Euskal Herrikuak batez ere, soinua, panderua, trikiti-xa... Entzutia eta dantzazia, baina jotzia ez.



ARANTXA HUIDOBRO
31 urte, etxekoandrea

Neri pianoa gustatuko litzaidake jotzea. Instrumentu dotorea da, klasikoa. Entzuteko ere ondo dago, baina ez naiz oso zaletua.



ANGEL BERISTAIN
65 urte, jubilatua

Ez dakat musika ikasketarik ze nere sasoiari holakorik ez zauan. Neri gustau soinua gustauko jatan jotzia. Oin, dantzau behintzat eitxen dot.



ANA MARIA BALMASEDA
40 urte, etxekoandrea

Jotzekotan pianoa gustatuko litzaidake ikastea, asko gustatzen zait entzutea. Semea ikasten ibili zen eta utzi zuenean pena hartu nuen.



ARANTXA ARRILLAGA
36 urte, klinika laguntzailea

Nik ez dot ezer ikasi musikan eta gainera etxata gustatzen, ez da nere afiziuua izan. Entzutia gustatzen jata, pianua eta gauza lasaixak.



NAHIA ABAD
5 urte

Solfeuan nabil eta lehen baterixia ikastia nahi naban jotzen baina oin nahixao dot txapak, hola gero Mauxitxan jotzeko.



MODESTO MUJIKAJUARISTI

Azaroaren 16an hil zen 67 urte zituela

MORKAIKO Mendizale Elkarte

osaten dugun guztiok,
eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizugu
Elgoibarko mendizaletasunaren alde
egin duzun guztiagatik.
Zauden tokian zaudela,
ez ahaztu
gogoan izango zaitugula.

MORKAIKO M.E.

■ Euskal jazkera tradizionalari buruzko hitzaldia

650. urteurreneko ekintzen barruan, datorren ostegunean, hilak 28, gure arbasoek etxean eta lanean erabiltzen zituzten jantzien inguruan hainbat gauza kontututako ditu Karmele Goñi etnologoak. Hitzen lagungarri modura, diapositibak emango dira. Saioa arratsaldeko 7etan hasiko da Kultur Etxean.

■ Emakumeari buruzko pelikula zine klubean

Duela gutxi sortu berri den Haizea Emakume Taldeak Emakundeko Itziar Fernández elgoibartarra gonbidatu du datorren ostegunerako, hilak 28, Ongarri Zine Klubarekin batera antolatutako saiora. Haizea eratu zenetik, zenbait kide egiten ari diren ikastaroaz aparte, datorren osteguneko antolatzen duten lehen ekintza dela esan daiteke. Ongarrik eskainiko duen pelikula "Antonia's line" izenburukoa da, ikutu feministakoa. Marlen Gorris zuzendariarena da, 1996an atzerriko filmerik onenari ematen zaion Oscarra jaso duen pelikula. Emankizuna baino lehen Itziar Fernándezek sarrera labur bat egingo du eta pelikularen amaieran, solasaldi-etzabaida moduko bat egongo da gonbidatu eta ikusleen artean.

■ Zinea ertaintan

Datorren ostegunean, hilak 28, Drogomenpekotasunen Prebentziorako Udal Sailak gestionatzen duen "Zinea eta Osasuna"ren programaren barruan bigarren pelikula emango da: Mike Nichols zuzendariaren "Una jaula de grillos". Ertaintako ikasle eta irakasleentzako bi saio egongo dira: goizeko 9,30etan bata eta 12etan bigarrena. Gurasoentzat iluntzeko 7etan emanaldi berezi bat antolatu da. Saio guztietan debatea eratuko da ondoren.

97an hasiko dira eraikitzen Deba ibaiko kolektoreak

Iñigo Elozegi, Ur Kontorzio-ko gerenteak joan den astean Kultur Etxean eman zuen hitzaldian Saneamendu Planaren nondik-norakoak azaldu zituen. Gerentearen hitzetan, "hiru urte barru, hau da, 2000. urterako, martxan egongo dira ur zikinak jasoko dituzten kolektoreak eta ur depuradora". Elgoibarri dagokionean, 1997an hasiko dira Deba ibaiko kolektore-


ak eraikitzen. Etxeetako ur zikinak, urbanoak eta aurre-tratamendua jasan duten ur industrialak jasoko ditu aipatu kolektoreak. Fase hau martxan jarriz gero, Deba ibaia kutsatzen duen faktore garrantzitsuenetarikoa desagertuko da. "Honi 1998an Elgoibar inguruan eraikiko den depuradora eranstean bazaio, 2000rako Deba ibaia garbia egongo dela esan daiteke".



Kontorzioak 40.000 milioiko inbertsioa egingo du Gipuzkoako arro ezberdinetan saneamendu planaren barruan. Hauetatik 4.000 milioi Deba arroan inbertituko dira. Elozegiren arabera, "saneamendu plana martxan jartzea beharrezkoa da europar mandatuak bete ahal izateko".



Venezuelako Hezkuntza ministroak, Luis Cárdenasek, IMH ikastetxea bisitatu zuen joan den ostiralean. Cárdenas ministroak Institutuko jardunaren berri jasotzeko aukera izan zuen ikastetxeko Egaña eta Rejo zuzendarien eskutik. Bisitaldian Alberto Ortueta AFMko zuzendari nagusia eta Gillermo Garate alkatea ere izan ziren.



Pako Iriondo 2000. urterarte mendizaleen lehendakari

Pako Iriondo, 70 urteko elgoibartarra, beste lau urterako aukeratu dute Euskal Mendizaleen Federazioako lehendakari. Joan den domekan Erreminta Makinaren Institutuan 200 bat lagun elkartu ziren Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroatik etorriak. Lehendakarietzarako hautagai bakarra izan zela komentatu digu Pako Iriondok, “urte ako daruadaz lehendakari izan, eta lanerako gogoa eta indarra daon

bitxartian eutsi ein bihar jako”. 1971tik 76ra bitartean lehendakari izan zen Pako. 1986an berriro hautatu zuten kargurako eta domekako izendapenaren ostean 2000. urterarte egongo da Federazioaren ardura-dun. Aurten Mendizaleen Federazioaren zuzendaritzan gazteak sartu direla aipatu du Iriondok, “gure asmua da gaztiak ere sartzia etorkizunerako bidia markatzeko, eta, egunen batian errelebua eon dain”.

■ Pitxoi tiraketa Albitxuriko zelaian

La Unión Ehiza eta Arrantza Elkartek Gabonetako pitxoi tiraketa saria antolatu du datorren abenduaren 14rako. Albitxuriko zelaian izango da goizeko zein arratsaldeko txandetan: goizez 10etatik ordu batera bitartean eta arratsaldez 14,30etatik 17,30ak arte. Bazkideek 4.000 pta. ordaindu beharko dute izena ematerakoan eta ez direnek 6.500 pta. Lehen 10 sailkatuentzat sariak egongo dira. Bezperan, abenduaren 13an, gaueko 9etan 6 postu zozketatuko dira bazkideen artean.

■ Santa Zeziliako ospakizunak domekan

Udal Musika Bandak domekan, hilak 24, ospatuko du musikarien zaindarien jaia. Goizean goiz, 9,45etan kalejira hasiko dute Plazatik. Amaieran meza ospatuko dute Santa Klaran eta eguerdiko 12,30etan kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian egitarau honekin: “Peña Taurina Vitoriana”, “Prometheus”, “Band-fever”, “El camino real” eta “Katiuska”. Ospakizun handiek merezi duten bezala, lagunarteko bazkaria izango dute Karakate elkartearen arratsaldeko 2,30etan.

■ Mendian federatzeko epea hilaren 30ean amaitzen da

Morkaiko Mendizale Elkartea mendi federatuen txartelak berritzen ari da. Federatu guztiek, berriek zein zaharrek, espreski adierazi beharko dute federatu karneta berri nahi dutela 74 02 97ra deituta, elkarteko buzoian abisua lagata edo elkartetik agertuta ostiraletan arratsaldeko 7,30etatik 9etara bitartean edo larunbatean goizeko 11,30etatik ordu bata arte. Aurten lau kobertura mota daude aukeran: nazionala, nazionala + frantziar Pirinioak, Europa, eta azkenik, mundu osoa. Hauez gain, mendiko bizikleta eta eskia ere gehi daiteke.

■ Sevillana ikastaroa

Udal Kirol Patronatuak sevillana ikastaroa antolatu du hilaren 26tik aurrera. 12 orduko iraupena izango du eta klaseak astearte eta ostegunetan izango dira 15,30etatik 16,30ak arte. Ikastaroaren zenbatekoa 3.000 pta. abonatuentzat eta 4.500 pta. abonatu ez direnentzat. Izena emateko 74 44 15era deitu.

■ Trikiti ikastaroa

Udal Kirol Patronatuak trikiti ikastaroa antolatu du astelehenean hasi eta abenduaren 28ra bitartean. Klaseak astelehen eta ostegunetan izango dira, gaueko 9,15etatik 11,15ak arte. Ikastaroaren zenbatekoa 2.000 pta.koa da bazkideentzat eta 3.000koa bazkide ez direnentzat.

■ Kilometroen bideoa

Kilometroak 96 batzordeak urtean zehar antolatu diren ekintza guztiak eta urriaren 6ko jaiko irudiak biltzen dituen bideoa egin du. 40 minutuko iraupena dauka eta salgai dago 1.500 pta.ren truke eskuratu nahi duenarentzat. Bideoa Ikastolan bertan edo Azkue argazkidendan eros daiteke.

David Tejero:

"Bandan ez zegoela eta, Oboea ikasi nuen"

David Tejerok 26 urte ditu eta oboe irakaslea da. Elgoibarko Musikeskolan ezezik, Eibarkoan eta Santanderren ere ematen ditu klaseak. Udal Musika Bandan eta Mauxitxan ere aritzen da,

txaranga saxofoia jotzen duelarik. Delinazioa ikasi zuen arren, bere burua musikotzat du Davidek. Aurrera begira, bere ilusiorik handiena orkestra batean jotzea litzateke.

- Oso gazte hasi zinen musikan.

- Bai, Pilar ikastetxean ikasi nuen eta hango apaiz batekin hasi ginen musika saltsan. Gero, Musikeskolan solfeoa eman nuen eta 5. mailara iritsi nintzenez instrumentu bat aukeratu behar nuela eta...

- Oboea hartu zenuen.

- Bai, kasualitatean izan zen. Nik Bandan jo nahi nuen eta asmoa saxofoia ikastea zen, baina oboerik ez zegoela eta, azkenean, ia ezagutzen ez nuen instrumentua ikasten hasi nintzen.


- Hain ezezaguna al da?

- Bai, eta hori instrumenturik zaharretariko delako. Musikeskolako ikasleentzat audizioak egiten ditugunean, ia inork ez du ezagutzen, klarinetaarekin nahasten dute askok. Halere, gero eta ezagunagoa da. Pelikula askotan sartzen dute oboea nahiz eta jendea ez den konturatzen. Esate baterako, "La misión" pelikulan.

- Nahiko garestia da, ez?

- Bai, 200.000 pta.tik gora.

- Musika ezezik, beste zerbaite ere ikasi zenuen.



"Oboea nahiko ezezaguna da nahiz eta pelikuletan, esaterako, asko entuten den"

- Bai, delinazioa. Lanean egon nintzen baina, krisia etorri, enpresen gainbehera, eta langabezian geratu nintzen. Oboe klaseak emateko aukera izan nuen eta, hemen nago.

- Elgoibarren, Eibarren..

- Bai eta Santanderren ere ematen ditut klaseak. Astean bi aldiz izaten dira eta gaua ere bertan pasatzen dut, pentsio batean. Egia esan nahiko

aldrebesa da hiru tokitan klasea ematea baina...

- Noizko orkestra batean?

- Nahiko nuke baina ez da oso erraza. Oposaketak gutxitan ateratzen dira. Dena dela, klaseak ematea ere gustatzen zait, nahiz eta musiko baten tzat jotzea den gauzarik onena.

- Zenbat ordu ematen dituzu egunean?

- Oboea jotzen nere kontura lau bat ordu eta

horri klaseak gehitu behar zaizkio.

- Nekosoa izango da, ez?

- Batez ere ezpainentzat zeren eta oso era berezian jarri behar dira ondo jotzeko. Baina ohitu egiten zara.

- Kainak zuk egiten dituzu.

- Bai. Banbuzko kainaberak saldu egiten dituzte eta gero nik neuk montatzen ditut. Lehenengo uretan sartu behar dira biguntzeko eta gero, hari batez lotu eta poliki-poliki, pazientzia askokin fin-fin utzi arte landu. Ordu erdi bat pasaten dut kaina bakoitza egiten.

- Eta zenbatean behin aldatu behar dira?

- Nik hilabete eta erdi ematen dut bakoitzarekin.

- Denbora librean zein musika entzuten duzu?

- Denetik gustatzen zait "bakalao" matxakantea izan ezik. Dire Strait, Phill Collins, U2...

- Santa Zezilia ospatzen al duzu?

- Bai, urtero izaten dugu jatordua bandan eta Musikeskolan beti antolatzen dira ekintza bereziak. Musiko batek derrigor ospatu behar du Santa Zezilia.

kiliBARREIN

Mendaroko gehigarria

Azaroaren 22a

34. zkia.



A

zaroko gehigarrian KiliBARREINen argitaratzeko honako argazki hau laga digu **Maritxu Unzuetak**. Berak

esan digunez argazkian dauden lau emakumeak oinez joan ziren Mutrikura. Erretratua 1943. urtean ateratakoa da, Deba eta Mutriku arteko bidean.

Hona hemen argazkiko lau emakumeen izen-abizenak: Ezkerretik hasita: **Katalina Aspe (†)**, **Nieves Goi-koetxea (†)**, **Serapia Aspe (†)** eta **Maritxu Unzueta**.

“Maketa lokalean bertan graba

Lili MOON

Musika hitza entzuten dugunean konnotazio desberdinak datozkigu burura. Batzuentzat musika dantzatzeko da, beste batzuentzat lasai-lasai entzuteko; badira musikari esker aberastu direnak ere... Ondoren aurkeztuko ditugun lau mendarotarrak ez dira, ez, musikari esker aberastu. Leire (bateria), Ina (kitarra), Cebri (ahotsa) eta Joe (baxua) musikarekiko afizioak lotu zituen eta Lili Moon taldea sortu zuten. Orain gutxi atera berri da labetik euren maketa berria.



2

Lili Moon taldeko kideek 22 eta 26 urte bitartean dute. Sorreratik izan ditu zenbait aldaketa taldeak. Izan ere, hasieran Josu zen bateria jotzen zuena baina lan arazoak zirela eta, taldea utzi behar izan zuen eta Leirek bete zuen bere tokia teklatuak utziz. 1995. urteko Aste Santu aldera, berriz, Ina gehitu zitzaien, kitarrarekin.

Momentuz Lili Moon taldeak abatetxean du lokala, Don Angel Basterretxea parrokoak utzita. Esan digutenez, urtero bidaltzen dute Udaletxera eskutitza lokalaren eskera eginez baina oraindik ez dute erantzunik jaso.

Lehendik zituzten abestiak aprobetxatuz eta berriak eginez, maketa atera berri dute, euren lokalean bertan grabatu dutelarik 4 Pistako bati esker. Maketaren aurkezpena Mendaroko Trinitade ermitan egin zuten eta ordutik hainbat kontzertu eman dituzte Zarautzen, Soraluezko gaztetxean eta Eibarko Bodega tabernan. Maketa eskuratu nahi duenak, Mendaroko Txirristaka edo Ormolara jo dezake bai eta Elgoibarko Malape edo Karobi tabernetara ere.

itu dugu”

- Nondik dator Lili Moon izena?

- Geuk ere ez dakigu oso ondo nondik datorren, aukeratu egin genuen eta bale. Orain gauden lau-
rok aldatzea pentsatu genuen baina azkenean berdina laga genuen.

Joe: Uste dut Lili 30. hamarkada-
ko pertsonaiaren bat zela.

- Nolatan abesten duzue ingelesez?

Ina: Arrazoa estetiko da. Gure taldean ahotsak beste instrumentu batek bezala funtzionatzen du.

Leire: Ahotsari ez diogu beste talde batzuek ematen dioten garrantzia ematen. Gehiago lantzen dugu musika. Baditugu abesti batzuk oraindik ere letrarik ez dutenak. Lehenengo musika egiten dugu beti.

Cebri: Arrazoi asko daude ingelesez zergatik abesten dugun azaltzeko baina gehienbat estetikarengatik da. Gainera, ingelesez kantatzea gustatzen zaigu. Halere, honek ez du esan nahi euskara, gaztelera edo beste hizkuntzak gaitzesten ditugunik.

- Trabak izan al dituzue ingelesez abesteagatik?

Cebri: Ez, guk daukagun konpromezu bakarra musikarena da.

Ina: Benito edo Laboa entzuterakoan jendea letrarekin geratzen da eta hori ondo dago baina gure kasuan musikak du garrantzia, nahiz eta letrak ere gauza asko esan.

- Nork egiten ditu letrak?

Ina: Azkenaldi honetan nik idazten ditut. Sentsazioetan eta sentimenduetan oinarritzen naiz batez ere.

Cebri: Letra musikarekin batera doa, dena oso emozionala da. Musika fuertegoa joko bagenu agian ez genuke nahiko barne sentimenduak kon-
tatzea baina musika eta



letra loturik daudenez...

- Zuen musika zertarako da: dantzarako, entzuteko...?

Cebri: Entzuteko. Jende gehienak musika oso “atmosferikoa” dela komentatzen digu, oso ambientala.

Ina: Ez da dantzatzeko, ez eta gutxiago ere. Eseri, musika entzun eta ea zer sugeritzen dizun.

- Inmaculate Fools, The Church... horrelako taldeekin identifikatzen al zarete?

Cebri: Beti entzun eta gustatu izan zaizkigun taldeak dira. Inkonzienteki musika mota hori jotzen duzu. Joek dioen bezala, talde horiei egiten diegun “omenaldi txikiak” lirirateke.

Ina: Nik uste dut originala den

edozein talderekin identifikatzen garela, estiloa alde batera utzita. Musika inteligentea bilatzen duten taldeekin identifika gaitzke.

- Zer moduz moldatzen zarete kontzertuetan?

- Oraingoz eta hasiera denez 6Nemen9koekin mugitu izan gara. Beraiek guk baino esperientzia haundiagoa dute eta guretzako laguntza handia dira. Oso pozik gaude beraiekin.

- Nola zabilzate diru kontuetan?

Leire: Kobratu dugun kontzertu bakarra Plaentxikoa izan da eta pozik gaude momentuz. Gainera oraingoz ez dugu gehiago nahi. Lehenengo, jotzea nahi dugu, kontzertuak eman eta jendeak poliki-poliki ezagutu gaitzala.

Cebri: Lokalean daukagun guztia guk erositakoa da.

- Non jotzea gustatuko litzaizueke?

Cebri: Bergaran kontzertuetarako areto bat ireki dute, Jam. Oso ondo dago.

Ina: Jendea gu entzuten gustura egongo den edozein tokitan gustatuko litzaizuke.

- Noraino iritsi nahi duzue?

Leire: Ea maketa lehiaketaren bat irabazten dugun!!!



Joe: Gure lana estimatzen duen jendea dagoen bitartean, nahikoa da.

Ina: Gure helburua momentuz kontzertuak eman, disketxeetara zintak bidali, irratira, prentsara... Eta hortik aurrera, ea zer gertatzen den.

Cebri: Lasai, ez dugu aberasteko intenziorik.

- Maketaren azala mendarotar batek egin du, ez?

- Bai, Aitor Etxeberriak bere kuadroak utzi zizkigun nahi genuena aukeratzeko eta kuadro horietako bat da maketaren portada.



Mendarotarrak Txiskolan

Mendaroko Elena Zubiaurre, Oihana Tarragual eta Leire Iriondo ETB1eko Txiskola programan izan dira. Lehenengo programan garaile izan ondoren final laurdenetara pasa dira. Programa hau abenduaren 2an emitituko da gaueko 10ak aldera. Lezotarren aurka arituko dira oraingo honetan mendarotarrak.

Santa Zezilia

Santa Zezilia eguna dela eta, herriko musikariek hainbat ekitaldi eskainiko digute igandean. Goizeko 9,30etan Txistularien kalejira izango da. Ondoren Bizipoza txarangak hartuko du erreleboa eta, azkenik, abesbatzak eguerdiko 12etako meza abestuko du Garagartzako elizan.

Bertso afaria

Euskara Batzordeak antolatuta, abenduaren 6an, larunbata, bertso afaria izango da Aizpe elkartean gaueko 9etan. Afariaren prezioa 2.500 pta.koa da eta txartelak Txirristakan, Ormolan, Leku-Onan, Jubilatuen tabernan eta Udaltexean eros daitezke abenduaren 2a baino lehen. 90 pertsonarentzat egongo da tokia.

4 Ardanza lehendakaria Mendaron

Datorren asteazkenean, hilak 27, Ardanza lehendakaria Mendaron izango da. Eguerdiko 12,30ak aldera etorriko da eta Industrialdea, Ikastetxe berria, Jubilatuen biltokia eta frontoia bisitatuko ditu.

Euskarazko II. Ipuin Lehiaketa

Euskarazko II. Ipuin Lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak. Deba Beheko eskualdeko ikastetxeetako ikasleek har dezakete parte. Bi maila egongo dira, L.H.ko 6. maila eta DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzendua lehena eta ertainetako ikasleentzat bigarrena. Maila bakoitzean hiru sari banatuko dira, 5.000 eta 35.000 pta. artekoak, eta horietariko bat mendarotar onenarentzat izango da. Lanak abenduaren 22a baino lehen bidali behar dira Udaltexera eta sari banaketa urtarrilaren 5ean egingo da.

“Eman euskarari berea”

EKBk antolatutako “Eman euskarari berea” kanpaina Mendarora iritsi da. Helburua, euskarari buruzko zenbait datu kezagarri plazaratzea da. Batzar honek lan ugari egin ditu legezatzatze eta administrazio sailean. Herriz herri zabaltzen ari den kanpainak azaroaren 29an egingo du aurkezpena Mendaron, gaueko 9,30etan Kultur Etxean. Kanpainari bukaera emateko manifestaldia egingo da Bilbon abenduaren 14an euskararen eskubideak aldarrikatuz.



Laparoskopiaren aplikazio berri bat martxan Mendaroko ospitalean

Emakumeen %30-40ak kuntzarik egin gabe, teleberen bizitzan zehar noiz edo noiz txizari eutsi ezina (incontinencia urinaria) izaten dute. Orain arte Bruch izeneko teknika erabiltzen zen gaitz honi aurre egiteko baina orain gutxi Mendaroko ospitalean laparoskopioa teknika jarri da martxan. Teknika berri honen bidez, eba-

kuntzarik egin gabe, telebista eta bestelako sistema optikoak erabiltzen dira eta 3 ebaki txiki eginez kanpotik ikusi eta zuzendu ahal da aipatu gaixotasuna. Laparoskopioari esker, egun bat baino gutxiagokoa da gaixoak ospitalean eman behar duen denbora eta kostua ere baxuagoa da.



II. Kontzezio azoka

Iaz antolatutako azokak izan zuen harrera ikusita aurten ere II. Kontzezio Azoka antolatzea erabaki du Udalak. Abenduaren 7an izango da, larunbata, goizeko 9etatik 2etara. Mendaroko frontoian eta inguruan era guztietako produktuak erosteko aukera izango da: nekazaritza ekologikoa, barazkiak, fruituak, Mendaroko txokolata, ezti, ogia, hegaztiak, artisautza...

kiliBARREN


Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Elena Zubiaurre.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Felix Marquez

Aramar-eko elektrizista



● **Non izan nahi zenuke “entxufea”?**

▶ Gustura nabil nere lanean.

● **Zein galdera argitu nahi zenuke?**

▶ Autonomo, aseguru eta horrelako gaiak. Ea zergatik enpresa txikiek hainbeste zerga ordaindu behar dituzten.

● **Mobilik ba al daukazu?** ▶ Ez, ze bestela ez lidake lanean utziko.

● **Nori luzatuko zenioke “kable” bat?**

▶ Laguntza behar duenari, Gurutze Gorriari esaterako.

● **Zertarako erabiliko zenuke robot bat?**

▶ Ezertarako ez, nahiago dut nire eskuz egitea dena.

● **Zerk ateratzen dizkizu “txispak”?**

▶ Etxera bazkaltzera joan eta telefono deiek ez uztea pakean.

● **Lotarako?** ▶ Neguan pijama eta udan ezer ere ez.

● **Argiarekin ala gabe?** ▶ Gabe.

● **Asmakuntzarik onena?**

▶ Neretzat tuboak sartzeko kanalak egiteko makina.

● **Irratia gustatzen zaizu?** ▶ Askok, Radio Estudio, Arrate... Egunkaria ez dut apenas irakurtzen baina irratia beti alboan daukat.

● **Eta telebistako saio bat aurkeztekotan?**

▶ Derbia edo dokumentalen bat.

● **Zeri emango zenioke indarra?**

▶ Gazteriarentzat lanpostuak sortzeari.

● **Pertsona “korrientea” al zara?** ▶ Baietz esango nuke.

● **Zein koloretako argiak dituzu etxean?** ▶ Egia esan, gehiago arduratzen naiz besteen etxeetako argiez nirekoez baino.

● **Zerk sortu dizu bizitzan deskargarik handiena?**

▶ Nire ezkontzak eta semeen jaiotzak.

● **Herrian zer berpiztuko zenuke “kalanbrazo” batez?**

▶ Elgoibar, den bezalako herria izateko, ondo dago.

● **Hilabeterik gustukoena?**

▶ Ekaina eta iraila, opor usaina, eguraldi ona...

● **Zerk kargatzen dizkizu pilak?** ▶ Emazteak eta familiak.

Hotza heldu da

Urte guztiak dira guretzako berdin hori betidanikan denok degu jakin eguraldi zatarra udazkenarekin azarora heldu da euri ta hotzarekin

Kalera irtetzeko aterkia hartu jertse haundia jarri ta hotzaz babestu iadanik giro honek gu nazkatu gaitu aurtengo negua zaigu aurreratu.



ITZIAR LEIARISTI




I. URTEURRENA

1995eko azaroaren 20an, 55 urte zituela hil zen **AMA MARI IRAETA URTIAGA**ren oroimenez, **URTEMEZA** izango da larunbatean, hilak 23, arratsaldeko 7etan Parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik mila esker.



Ekain II proiektuak turismoa erakarri nahi du Deba Behera

Gaur, ostirala, Ekain II izeneko proiektuaren erakusketa inauguratu da Kultur Etxean. Aipatu proiektuak Deba Behea eskualdeko ekinga turistiko eta kulturalak batuko ditu. Abiapuntua, Debako Ekain kobetako margoen birprodukzioa izango da eta hortik aurrera zirkuitu kulturala eratuko da.



Goian ikus daiteke ekain kobako margoak. Horiek aprobetxatuz eratuko da zirkuitu turistiko-kulturala. Behean Olaso eta hirugarren argazkian Mutrikuko argazki bat.

Ekaineko marrazkiak Deban daude eta 1969. urtean aurkitu zituzten. Marrazkien egoera ez da oso ona; horregatik birprodukzio bat egingo da Astigarribiako Xoxuarte-Errekan jendeak bisita ditzan. Margoek duten erakargarritasuna aprobetxatuz, nolabaiteko zirkuitu kulturala eratuko da inguruan. Proiektuaren helburua Deba Behea bultzatzea da eta lau herri daude sartuta: Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku.

Arkeologi eta estetika zentroa

Ekaineko marrazkien birprodukzioaz gain, bestelako aukerak ere eskainiko dira zirkuitu turistiko kultural horren barruan, Euskal Herriko kultur aberastasunaren alderdi ezberdinak bilduko dituelarik. Margoekin batera, harrerarako erakuntza bat egongo da eta bertan Deba Beheko eskualdeari buruzko informazio zehatza emango da. Era berean, arkeologi eta estetika zentroak eraikiko dira, euskal arkeologia eta adierazpen estetikoaren museo antzekoa izango delarik. Eraikuntza hauetan euskal artistek beraien tailerra izango dute euren lana lantzeko eta, era berean, inguruaren araberrako laberinto eskultoriko bat eratuko litzateke.

Altamirako margoak eta Arantzazu bisitatzera joaten den jende kopurua hartu da kontuan eta Ekain II proiektuak urteko 200.000 pertsona inguru erakartzea da helburua. Jendeak ez du ohi-turarik eskualde honetan geratzeko eta horrelako proiektu batek aukera emango luke kanpokoengana heltzeko.

1.400 milioi

1.400 milioi pta.ko aurrekontua du Ekain II proiektuak. Lehen fasean margoen birprodukzioa egingo da eta 372 miloiko kostua izango du. 2000. urterako jarri nahi da martxan. Asmoa, instituzio eta udalek ezezik, inbertsio pribatua ere bultzatzea da, aurrekontuari aurre egin ahal izateko. Aipatu zirkuituaz gain, lau udalek (Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku) aukera izango dute bakoitzak nahi eta ahal duen zerbitzu turistikoa osatzeko. Era honetara, Deba Behera hurrertzen diren bisitariak, Ekaineko marrazkiak eta zirkuitu kulturala ezezik, herri bakoitzean bestelako eskaintzak ere izango lituzke. Elgoibarren momentuz, San Lorentzoko margoak, Erreminta Makinaren museoa eta museo paleontologikoa ditugu eta aurrera begira zoologiko prehistoriko bat eraiki nahi da.

Altzolako torrekua (III)

- Dokumentuetan ageri diren Torrekuaoko lehenengo bizilagunak Francisco Alzola, Pedro Garcia Alzola eta Andres Alzola izan ziren.
- Francisco, XV. mendearen hasieran eta XVI.aren hasieran aritu zen lonja gizon bezala. Bere semeak, Pedro Garciak, aitaren bidea jarraitu zuen eta 1537. urterako dorretxea, lonja eta Aurteinolako erdiaren jabe eta beste burdinola batzuen maizter bezala ageri da.
- Andresek hartu zuen Torrekuaoko altzolarren hurrengo lekukoa. Maria Sarasuarekin ezkondu zen lehedabizi eta, alargundu ondoren, 1562.ean Isabel Zabalarekin (Zabala dorretxekoa).
- Azken ezkontza honetan, jabetza hauek zehaztu ziren: Torrekua, ondoko etxe berria eta bodega, Berazaeta, Lizundia, Kortaberri eta Irabanetako baserriak eta lurrak.
- Andres enpresa gizon sutsua izan

zen. Burdina eta bale-koipea komertzializatu zituen eta itsasuntzile eta garraiolaria izan zen.

- Andresek burdinkia ekarri ohi zuen Bizkaiatik Debaraino itsasoz eta Debatik Altzolara bere gailupa eta txaneletan. Maiz burdinolak errentan hartu ohi zituen burdin barrak edo erramintak egiteko. Oletako urtzagintzan bere mendietako egur-ikatza edo herriko "cortadurak" erabiltzen zituen. Burdin-gaiak egin ondoren Italia, Sevilla eta handik Ameriketara komertzializatzen zituen.
- Altzola auzunea orohar, oso garrantzitsua izan zen bale-koipearen garraioarekin bezala. Andresek Ternua edo Terranovara untxiak bidali zituen 1567, 1570 eta 1571. urteetan bale-koipea ekartzera. Altzolaraino ekarri ondoren bere lonjako treska edo tinajetan gorde eta Euskal Herrian zein Gaztelan saltzen zituen.

PELLO ARRIETA



Fancisca Maguregi Garate (1912-1977)



- Elgoibarko San Migeleko Errotatxo Goikoan jaio zen 1912ko irailaren 15ean.
- Bost ziren familian, bera hirugarrena, hauetako bat gazte hil zelarrik.
- Eskola gutxi ikasteko aukerarekin etxeko lanetan buru-belarri hasi zen familiari laguntzearen.
- 22 urterekin Jose Manuel San Martinekin ezkondu zen Urruzuno Etxetxo baserrira.
- 10 seme-alaba izan zituzten.
- Etxeko lanak eta sokak eginez urte askoan atera zuen aurrera familia, tartean batzuk ere hil zirelarrik.
- Urte mordoia egin zuen astoarekin kalera bajatuaz esnea partitzen.
- Sinesmen handikoa izanik, jaietan goiz mezetara joaten zen.
- Asko gustatzen zitzaion senarrarekin Urkiolako San Antoniora joatea. Orduan ohitura zen bezala, zapata kaxa batean eramaten zen jatekoa.
- Andre apala, lagun giroan gustatzen zitzaion egotea.
- 1977ko abenduaren 11n hil zen 84 urte zituela.

JUANITO GOROSTIZA



*Mendaron azaroaren 6an, 68 urte zituela hil zen
ASENSIO MENDIKUTEren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

MOTZAK

Espeleologia ikastaroa

Leizarpek II. Espeleologia ikastaroa antolatu du. Urte osoan zehar hainbat irteera egiteko aukera izango du ikastaroan izena ematen duenak. Lehen irteera bihar, hilak 23, izango da Aitzbeltzeko aitzulora. Hurrengo abenduaren 14an Aixako zulora. 1997. urtean zehar hiru irteera egingo dira, urtarrilean, martxoan eta ekainean, hil bakoitzean bana. Espeleologia ikastaroari esker eskalada, arkeologia, argazkilaritza, hidrologia, topografia eta beste zientzia batzuk ezagutzeko aukera eskaintzen du Leizarpek. Izena emateko Leizarpe Espeleologia Taldeak Santa Klara 18an duen egoitzara zuzendu astelehen eta asteazkenetan 7etatik 9etara bitartean.

3 urtekoentzako igeriketa ikastaroa

Udal Kirol Patronatuak igerian ikasteko ikastaroa antolatu du 3 urteko haurrentzat. Datorren asteazkenean, hilak 27, hasiko dira klaseak Olaizaga Kiroldegiko igerilekuan. Klaseen ordutegia astelehenetik ostiralera bitartean izango da, arratsaldeko 17,30etatik 18,00ak arte. Prezioa 4.000 pta. koa da bazkide direnentzat eta 5.500ekoa bazkide ez direnentzat. Izena emateko 74 44 15era deitu edo Kiroldegitik pasatu.



Antonio Fernandez:

"97an Karakaterako prestatuko naiz"

■ **Errekuperatuta Karakatek esfortzutik?** - Esfortzua? Ez zen hain esfortzu handia izan, oinez igo nintzen eta. Agarreraino korrika eta gainontzekoa azkartxo, baina oinez.

■ **Zure asmoa zein zen?** - Hasieran 50 minutuan egitea pentsatzen nuen duela hiru edo lau hilabetetik entrenatu gabe nagoelako. Azkenean 47 minutuan egin nuen. Ez nuen bihotza fortzutzerik nahi izan. Behin 41'19"tan igota nago, 37 urterekin. Duela bi urte, lehen edizioan, 44 minutuan igo nintzen.

■ **Datorren urtean berriro parte hartzeko asmorik?** - Bai, 40 minuturen azpitik egiteko prestatuko naiz. Oinez ala korrika ez dakit, baina 40 azpitik egin nahi dut.

■ **Ordu erdian igotzen dutenei buruz, zer iritzi?** - Hori bai dela pasada bat. Zaletasuna daukagunok badakigu zer den hori eta horretan ez dabilenak ezin du ulertu zer den Karakatera ordu erdian igotzea.

■ **Lasterketak utzita al dituzu?** - Piska bat bai. Arrantzara eta nik daukadan terrenotxo batean animaliekin lanera joaten naiz gustura. Hala ere, Gasteizeko marathoi erdian parte hartzeko asmoa dut. Behin 1h19'ko denbora egin nuen. Lasterketetan parte hartzea gustatzen zait niri batez ere, tartean




ibiltzea, saltsan.

■ **Marathoia ere korritu izan duzu.** - Bai, Donostiakoa. 1992an egin nuen, 3 ordu eta 11 minutuan, bi aldiz bakarrik entrenatuta. Eibartik Debara 1h16n joanda nago baina niretzat 15 edo 20 km-ko lasterketak dira egokienak.

■ **Zein entrenamendu egiten duzu lasterketa bat prestatzeko?** - Gasteizkoa egiteko San Lorentzora korrika joaten hasiko naiz. Korrika hasi eta kitto, estiramendu, beroketa eta horrelakorik ez dut egiten.

■ **Ba al dakizu zenbat lasterketatan korritu duzun?** - Ba, 200en bat izango dira. Kopatan bakarrik ez dakit zenbat daukadan etxean. Kalkulatu, 33rekin hasi nintzela korritzen. 95 kilo nituen. Plazentzian korritu nuen lehen aldiz. Amaitu egingo nuela agindu nion neure buruari, beti ere, azkena hel-tzen ez banintzen. Eta gaur arte. Popularretan ezezik, beteroentzako lasterketa federaturen batean ere korritu izan dut baina hor ez dago ezer egiterik.



OIERKI IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
☎ (943) 20 35 15 • ☎ ABERIAK (943) 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

Bihar, hilak 23, hasiko da Nazioarteko Xake Txapelketa

Atzo, osteguna, egin zuten Nazioarteko Xake Txapelketaren VI. edizioaren aurkezpena. Euskal Herriko Xake Federazioak eta Udal Kirol Patronatuak antolatzen duten txapelketa hilaren 23an, larunbata, hasiko da. Ohi denez, xake jokaldi guztiak Kultur Etxean izango dira. Zubi-Ondoko kideak arduratuko dira saioak antolatzeaz.



Goian, Daniel Cámpora, iazko irabazlea. Behean Mitkov bulgariarra eta Uvilaba georgiarra aurrez aurre. Azken honek ez du aurten parte hartuko.

Seigarren edizio honetan Estatuko zein atzerriko herrialdeetatik etorritako maisu handiak jokatzeko aukera izango da. Udal Kirol Patronatutik emandako datuen arabera, Oleg Korneev errusiarra, iazko txapelketako irabazlea izan zen Daniel Cámpora argentinarra, Alejandro Hoffman argentinarra, Ecuador-eko Carlos Matamoros eta Felix Izeta euskalduna izango dira. Egongo ez diren artean, Uvilaba georgiarra aipatu behar da. Edizio guztietan Elgoibarko txapelketan parte hartu badu ere, aurten ezinezkoa izango zaio lana dela eta.

Urtero bezala, xake saioak irekiak izango dira, hau da, nahi due-

nak Kultur Etxeko hitzaldi gelara ikusle modura joateko aukera izango du. Arratsaldez jokatuko dira 4etan hasi eta gaueko 9ak arte. Hilaren 28an goizez izango dira partidak, 10etatik aurrera.

Sei urteko bizia

Orain dela sei urte antolatu zen lehen aldiz Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa. Apaltasunean hazitako txapelketa da. 5. mailako kategoria izan zuen lehen edizio hark. Kategoriaren arabera izen edo ospe handiagoko ala txikiagoko jokalariek parte hartu ohi dute. Urteak aurrera joan ahala, kategoriaz igotzen joan da txapelketa, gaur egun 10. maila duelarik.

KIROL EMAITZAK

Futbola

Pedrusko 1 - Gazteak 1 (2. erreg.)
Elgoibar 2 - Munibe 1 (1. erreg.)
Amurrio 2 - **Haundi** 2
Elgoibar 3 - Añorga 1 (1. jubenilak)
Elgoibar 1 - Gazteak 3 (2. jubenilak)
Elgoibar 1 - Aurrera 1 (**Kadeteak**)
Eibar 5 - Elgoibar 1 (**Infantilak**)
Elgoibar 3 - Antoniano 2 (**Neskak**)

Saskibaloia

Elgoibar 48 - Lazkao 40

Eskubaloia

Donibane 3 - Unceta Elg. 35 (**Kad. neska**)
Pagoaga Elg. 24 - Usurbil 13 (**Jub. neska**)
Hunday 22 - Urnieta 25 (**Seniorrak**)

Pilota

Aretxabaletako txapelketa:

Leon I/Balzola (Elgoibar) 22 -
Bengoia/Lasagabaster 14

Gipuzkoako txapelketa:

Seniorrak: Carrete/Sanchez 22 (Donostia) -
Basueta/Ansola 19 (Elgoibar)

Futbitoa, Urasandin

Maser 2 - PSK 6
Sanroketarrak 6 - S. Braga 1
Kosakos 4 - Menisco 1
Ikus Optika 2 - Herminios 2

Areto Futbola

Elgoibar F. S. 2 / Astilleru 2 (1. maila)
Elgoibar F. S. 6 - Bar Egoki 5 (Autonomikoa)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 23
9,30 Eibar - Bergara (**Kadeteak**)
11,15 Elgoibar - Real Unión (**Infantilak**)
13,00 Eibartarrak - Soraluze (2. erreg.)
17,00 **Haundi** - Aurrera
18,45 Pedrusko - Beti Sutan (2. erreg.)
Igandea, 24
10,00 Urki B - Urki A (2. jubenilak)
11,45 Eibartarrak - Mondragon (**Neskak**)
13,30 Urki - Mutriku (2. erreg.)
15,30 Eibar - Miren Bihotza (1. erreg.)
17,15 Elgoibar - Bergara (2. jubenilak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 23
17,30 Pneumax Elg. - Egia (**Kad. mutilak**)

Futbitoa, Urasandin

(**Arbitraia: Sorpresa**)
9,00 Karkis - Zazpi
10,00 Kunta Kinte - Berrogei Duro
11,00 Orbela - Aurten Bai
12,00 S. Pitxote - Bokordo&Bofino

Pilota, Ikastolako frontoian

Ostirala, 22
22,00 Jubenilak: I. Irureta/A. Irureta
(Azpeitia) - Leon I/Balzola (**Elgoibar**)

Jose Mari Fdez. Suso: "29'43"ko denbora jaitsi liteke"

Hamaika ikusteko jaiok garaia esan ohi da, eta arrazoiarekin. Nork esango luke Plaza Handitik Karakateraino bitarteko aldapa gogorak arnas-estuka igo eta gero, sprinterako indarrak geratuko zitzaizaienik lasterketa buruan zihoazen biei? Lasterketaren amaiera ikusteko Karakate gainera igo ziren zaletuak aho zabalik geratu ziren eibartarrak eta elgoibartarrak egin zuten denborarekin.

Sprintean

Aldai eibartarrak Susoren errekorra hautsi zuen iaz, marka berria 30'50"an ezarriz. Aurten Susok ez dio barkatu eibartarrari. Lasterketa osoan Aldai aurretik joan zen arren, Jose Mari Fernández Susok aurrea hartu zion azken metroetan. "Hasieratik indartsu atera zen Aldai. Lasterketaren buruan jarri ginen biok. Estazioan trenbidea zeharkatzea pentsatuta nuen baina Karakoletik joateko esan ziguten antolatzaileek. Honez gain, Agarrera heltzean hesi bat itxita topatu genuen



12 korrikalariak egunkarietzako argazkirako posean. Goiko erretratuan Jose Mari Fernández Suso elgoibartarra tontorrera iristean.

eta bion artean irekitzen saiatu ginen. Minutu erdi edo egongo ginen zeregin horretan. Hor denbora galdu izan ez bagenu marka hobea egingo genukeen. Ez nuen espero 29'43" egiterik baina, hala ere, argi ikusi dut jaitsi litekeela".

Juan Aldai eta Jose Mari Fernández Susoren arteko norgehiagokaz aparte, Karakatera Igoeraren III. edizioak izan zuen bestelakorik. Guztira 12 partehartzaile egon dira aurten. Oinezkoen txandarik ez zen egon, denak atera ziren 11etan. Elgoibar, Plazentzia eta Eibarko korrikalariak hartu zuten parte. Lehen aldiz, 50 urte-tik gorako batek eta emakume batek korritu zuten.

Sailkapena

- 1- Jose M. Fernández29'43"
- 2- Juan Aldai29'50"
- 3- Jose Cruz Montes32'17"
- 4- Unai Bengoa33'13"
- 5- Iñaki Konde35'24"
- 6- Jose Antonio Agote35'25"
- 7- J. Martin L. de Larrinzar .38'09"
- 8- Aitor Ansotegi39'24"
- 9- Andoni Calles40'48"
- 10- Pilar Arriola41'43"
- 11- Iñaki Zubillaga44'48"
- 12- Antonio Fernández47'40"




Pilar Arriola: "Gogorra izan da baina gustau jata"

Morkaiko eta Urgazi Triathloi Taldeak emakumeak parte hartzera anima zitezen nahi zuten. Emakumea bakarra izan bada ere, ez da nolana hikoia izan. Pilar Arriolak korrikalari kementsua dela argi utzi zuen. "Zoro hauekin korrika itxiak bildurra ematen dau baina hala ere probatzia nahi naban. Egixa esan, ez naban asko entrenau, pare bat aldiz ixo naiz, oinez, Iñaki Kondekin bidia ikasteko. Zapatilak iltziekin jantzi izan banitxu hobe, ze lokatz handixa zauan eta bukaeran izotz asko. Hala ere, pozik nao eindako 41'33"kin. Marathoiakin ezin leike konparau, gauza desberdinak dia baina bixak diaz oso gogorak. Hala ere, datorren urtian berriro ein bihot".

Sallobenteko ermitako pinturen inaugurazioan izango da Jose Antonio Ardanza lehendakaria ere

Jose Antonio Ardanza lehendakariak parte hartuko du Sallobenteko berritutako pinturen inaugurazio ekitaldian. Datorren asteazkenean, hilak 27, goizean izango da inaugurazioa. Pinturak joan den hilean Sallobentera ekarri zituzten atzera. Aldarearen atzeko aldean dauden pinturak dira zaharrenak eta berrienak paneletan jarri dituzte, ermitaren eskuineko horman zintzilikatuta.



Aldarearen atzean dagoen dameroa Gotiko estilokoa da, erdi aroaren amaierakoa. Honez aparte, Errenazimendukoak eta Neoklasikoak ere topatu ziren.

Errestauratu berri diren pinturak bata bestearen gainean margotuta agertu ziren duela zazpi urte. Pello Arrieta arte ikerlariak egindako azterketaren arabera bakoitza aro edo garai ezberdin batekoa da.

Neoklasikoa

Pinturarik berriena estilo neoklasikokoa da. Gorria, berde argia eta berde iluna dira erabilitako

koloreak eta XVIII. mendearen erdi aldetik XIX. mendera bitartean margotuta ei daude.

Errenazimendukoa

XVI. mendekoak omen dira ezkerreko horman eta erdiko panelean jarritako pinturak. Bestek baino kolore ederragoak ditu, gorriak eta beltzak nagusiki, eta esku trebeek egindakoa dela antzean daiteke. Pigmentu gorriaren erabilerak (laka garestia omen zen)

kalitate irizpideak kontuan hartu zirela adierazten du.

Gotikoak

Xake erako forma tridimensionalak duten pinturak dira. Errestaurazio lanetan aritu direnen hitzetan “Ekain, Altxerri eta kobazuloetako pinturak alde batera utzita, momentuz Gipuzkoan dauden pintura gotiko zaharrenak dira”. Metodo zehatz eta landuz margotuta daude eta berant erdi arokoak dira.



Aurkikuntza garrantzitsua

1989an Sallobenteko ermitaren teilatuak konponketa beharra zuenez, Gipuzkoako Aldundiari laguntza eskatu zioten sallobentearrek. Laster konturatu ziren teilatuak ezezik, ermita barruko hormek ere berritu beharra zutela. Jose Luis Belloso apaizak elizbarrutiko artelanen kontserbaziorako arduradunari deitu zion ermitako hiru erretaula neoklasikoak garbitu eta beharrezko kontserbazio lanak egiteko. Erretaulok absidetik kentzerakoan errestituzeko, pintura dekoratiboz batzuk agerian geratu ziren. Beste horma bat pikatzerakoan, margotutako ohol batzuk bistaratu zituzten. Aurkikuntzaren garrantziaz oharturik, Artelekura eramanez zituzten hainbat adituk errestitua zitzaten.

PELLO ARRIETA

Nagore Pérez

“Ikasketak moda baino gehiago inporta zaizkit”

Joan den ostiral gauean, Zestuako bainuetxean izan zen Mis Gipuzkoa aukeratzeko II. Lehiaketa. Iaz Nuria Lopez elgoibartarra izan zen lehian eta aurten Nagore Pérez izan da. Gaur egun Deban bizi den 17 urteko gazte hau Ohorezko Lehenengo Dama aukeratu zuten. Lortutakoa garrantzitsua izan arren, Nagorerentzat ikasketak daude aurrena. Bere bizipenak kontatzeaz gain, eskerrak eman nahi dizkiela lagundu dioten guztiei komentatu digu, “nire familiari batez ere”.



★ **Kontaiguzu nola izan zen txapelketa.** - Esperientzia polita izan da, niretzat primeran irten da dena. Ez nuen sari hau lortzerik espero. Beste 14 neska zeuden tartean eta maila benetan altua zen. Hiru aldiz desfilatu genuen. Lehenengo pasea kaleko erropekin (pret á porter deitzen dena), bigarrena bainujantzian eta azkenik gaueko trajearekin. Oso garrantzitsua da naturaltasunez desfilatzea eta epaileengan irribarrea sortaraztea.

★ **Saritutako lau neskek txapelketaren antolatzaile den First Model agentziakoak zarete. Kasualitate hutsa?** - Txapelketan azpikorik ote dagoen asko hitz egin du jendeak. Nik esan dezakedan gauza bakarra zera da, irabazlea eta agentziako zuzendariaren artean zegoen erlazioa nahiko estua zela. Parte hartu genuen neskek pentsatzen genuen beste neska batek irabaziko zuela bere senargaia epaimahaian zegoelako. Gero Ohorezko Bigarren Dama aukeratu zuten, nire atzetik. Beraz, ez dakit zer pentsatu.

★ **Etorkizunerako planak?**

????? **NAGORE** ?????

- **IKASKETAK:**
BBBko 3. maila
- **NEURRIAK:** 88 - 61 - 92
- **ALTUERA:** 1,75
- **PISUA:** 58 kg.
- **MODELO BAT:**
Cindy Crawford

- Lehenengo ikasketak daude. Kazetaritza egin nahi dut. Modaren munduarekin lotuta jarraitzea espero dut.

★ **Amets bat?** - Diseinatzaile ospetsu batentzat desfilatzea.

★ **Zer esango zenieke zure adineko neskei?** - Ez obsesionatzeko irudiarekin. Gorputza zaindu egin behar dela baina denetik janez eta kirola eginez. Gainera, kurba dituen gorputz bat formarik gabeko gorputz bat baino politagoa da.

★ **Valenciaga, Angel Arregi... Nola ikusten duzu euskal modaren etorkizuna?** - Euskadin dauden diseinatzaileen artean gutxi dira benetan onak, proiektzio handikoak. Pertsonalki Amaia Arzuagaren arropak asko gustatzen zaizkit. Laster, bere arropen desfile batean parte hartzeko aukera izango dut.

JABI LEON



Salerosketak

- ❖ BUTANOZKO SUKALDE ia berria saltzen dut estrenatu gabeko labe batekin. ☎ 74 10 09
- ❖ MOTOR BAT erosiko nuke. ☎ 74 17 87
- ❖ Bigarren eskuko BIBOLIN BAT saltzen dut. Oso egoera onean. ☎ 74 23 13
- ❖ Errepiderako BIZIKLETA salgai. Merke eta egoera onean. ☎ 74 11 29
- ❖ SAXO TENORE BAT erosiko nuke. ☎ 74 28 53
- ❖ Bigarren eskuko lanparadun BI SOLARIUM-ohet salgai. Prezio eta egoera onean. ☎ 74 19 23 / 74 21 82
- ❖ 103 cm-ko BEROGAILU elektriko bat saltzen da. ☎ 74 24 57
- ❖ EHIZARAKO ESKOPETA salgai. ☎ 74 17 20
- ❖ FORD SCORT R-S TURBO autoa saltzen dut. SS-AG. Oso egoera onean. ☎ 74 05 14/74 15 16
- ❖ HIRU HUSKY SIBERIAR txarkurkume saltzen ditut. ☎ 74 41 45 Javi
- ❖ ERREPIDEKO BIZIKLETA bat salgai. Kuadroaren tamaina 50. Campagnolo Mirage. 105 shimano kanbioak. 2 urte. 65.000 pta. ☎ 75 51 75 Javi
- ❖ LIBURU hauek erosiko nituzke: "Intermediate Matters" (Ed. Longman), "The Heinemann English Grammar" (Ed. Heinemann) eta "Dublin People" M. Binch (Ed. Oxford. Bookworms kolekzioa). ☎ 74 07 74 Igor (gauetz deitu)
- ❖ Golf GTI autoa saltzen dut, SS-AS. Oso egoera onean. ☎ 17 44 33
- ❖ BIBOLIN BAT saltzen dut oso egoera onean. ☎ 74 26 35 Manuela

Garajeak

- ❖ Marradun garajea alokatzen dut pista beltzean. ☎ 74 01 77
- ❖ Garajea salgai Karakolaren alboan, pista beltzean. Merke. ☎ 74 27 73
- ❖ Auto txiki batentzako marradun garajea alokatzen dut. Batzoki azpian. ☎ 74 01 13
- ❖ Garaje bat saltzen dut Arregitorre leian. ☎ 74 30 81

Lana

- ❖ Neska bat behar dugu etxeko lanak egiteko arratsaldean. ☎ 74 43 47 Sara
- ❖ Arratsaldeko 2,30etatik gaueko 9etara lan egiteko prest nago haurrak zaindu eta etxeko garbiketarako eginez. ☎ 74 30 90
- ❖ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko prest nago goizez. ☎ 74 43 16 Marimar
- ❖ Etxeko lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. Esperientzia daukat. ☎ 74 43 16 Arantxa
- ❖ Publizitate eta promozio gaien enpresak komisioz komertzialak behar ditu (egun osoz edo erdiz). ☎ 70 12 33
- ❖ Emakume batek pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ 74 30 30
- ❖ Emakume batek pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ 74 15 09
- ❖ Neska euskalduna umeak zaindu edo etxeak garbitzeko prest dago. ☎ 74 04 58

Partikularrak

- ❖ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi
- ❖ Matematika finantzieroak ematen dituen norbait behar dugu. ☎ 74 13 18
- ❖ Partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH, Lehen zikloa eta ingelesa. ☎ 74 28 02

Etxebizitzak

- ❖ Altzolan egoera onean dagoen buhardilla bat salgai. Prezio ona. ☎ 74 37 41
- ❖ Etxea salgai San Roken, Arregitorre 12. Erabili gabe. 3 logela, 2 bainu, jangela, sukaldia, ganbara eta garajea. ☎ 75 51 77 Tere
- ❖ Pisua salgai Erretxindi kalean. 4 gela, sukaldia, egongela, komuna, ganbara eta gas natural berogailua ditu. ☎ 74 44 66 Arantxa

❖ Pisu bat behar dut alokatzeko Elgoibarren lehenbailehen. ☎ 909 22 36 27 Leire

❖ Pisua salgai Bernardo Ezenarro 5ean. Berogailua, 3 logela, jangela, sukaldia, komun bat eta 2 ganbara. ☎ 74 15 90

❖ Deuston pisua betetzeko neska behar da. ☎ 74 33 38 Vanesa

❖ KONPARTITZEKO etxe bila nabil. ☎ 74 09 44

❖ Pisua SALGAI SANTA ANA kalean. 3 logela, sukaldia, jangela, 2 komun eta ganbara. ☎ 86 12 47 - 74 35 86

Agurrak

❖ Pilarikako hiritik Elgoibarrera **Iñigo eta Nuriarentzat** elkarrekin hasi behar duten bizi berri horretarako "que les vaya bonito" eta zorion handiz **Ana, Reyes eta zure ahizpa Kris.**

❖ **Idoia Epelderi** zorionak hilaren 27an 13 urte beteko dituelako familia guztia partez.

❖ Zorionak **Maialen Astigarra-gari** igandean, hilak 24, 10 urte beteko dituelako. **Endika eta Mireia**ren partez musu handi batekin.

❖ Azaroaren 20an 39 urte bete zituen **Mila Tudankari** super zorionak bere alaba **Ane eta lagun Itsasoren** partez.

Bestelakoak

❖ Casio markako erlojua galdu nuen joan den ostiralean Kiroldegian. ☎ 74 39 83

❖ Umeen erloju bat galdu nuen Kiroldegian joan den larunbatean, hilak 9. Lorus markakoa da. ☎ 74 25 47 Aitor

❖ Eskusoinuak konpontzen ditut, marka eta modelu guztiak. ☎ 47 00 01 (Setatik 7etara, ostegunetan izan ezik)

❖ Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak 18 urtetik gorako guztiei dei egin nahi die odola ematera anima daitezen, bai eta bazkide izatera ere. ☎ 74 36 39 / 74 11 90

❖ Haizea emakume taldeak idazteko makina eta kalefakzio bat behar ditu. ☎ 74 32 06

❖ Etxebizitza jatzeko denetik eta 1,35 m. ko koltxoia behar du **CARITASek**. ☎ 74 10 09 / 74 12 57

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbuletaria:
 Larrialdiak.....461111
 Txanda hartzeko.....743354
 Planning-a742950
 Alkoholiko Anonimoak..740385
 D.Y.A (anbulantzia) ..464622
 Gurutze Gorria.....743864
 Mendaroko Ospitalea756264
 Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
 PESA (Eibar).....102131
 Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
 Udal Kirol Patronatua744415
 Kultura Zerbitzua742158
 Mendaroko Udala756100
 Ongizate zerbitzua...741008
 Udaletxea741050
 Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
 Elgoibarko Izarra.....741626
 Kiroldegia74 4415
 Kontsumo Bulegoa ...743088
 Liburutegia743525
 Musika Eskola742145
 Mintxeta744315
 Parrokia740842
 Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
 Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41
 Herri Eskola74 08 79
 I.M.H.74 41 32
 Institutua74 02 67
 Ikastola74 44 41
 L.H.I.....74 44 80
 Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
 El Diario Vasco74 40 73
 El Correo Español...74 10 82
 Egin.....10 84 21
 Zazpiki irratia74 34 74

22 OSTIRALA

19,00 EKAIN PROIEKTUAREN ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxean

19,30 ITXAROPENA ABESBATZAREN KONTZERTUA

✓ Udal arkupeetan

22,15 ZINEA "Fargo"

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

23 LARUNBATA

16,30-19,30-22,15 ZINEA

"La roca"

24 IGANDEA

9,45 BANDAREN KALEJIRA

10,15 HITZAREN OSPAKIZUNA

✓ Santa klarako elizan

12,30 BANDAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

16,30-19,30-22,15 ZINEA

"La roca"

25 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"La roca"

28 OSTEGUNA

9,30-12,00 ZINEA ETA OSASUNA

Ertainetako ikasleentzat

"Una Jaula de Grillos"

✓ Herriko antzokian

19,00 ZINEA ETA OSASUNA

Ertainetako ikasleentzat

"Una Jaula de Grillos"

19,30 HITZALDIA

650. urteurrenaren barruan

Gaia: Jazkera tradizionala

Hizlaria: Karmele Goñi etnologoa

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINE KLUBA

Aurkezpena: Emakundeko Itziar Fernándezen eskutik

"Antonia's line"

Antolatzaileak: Ongarri Zine Kluba eta Haizea Emakume Taldea

29 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Belleza robada"

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
23, larunbata:	Etxeberria	Etxeberria
24, igandea:	Etxeberria	Etxeberria
25, astelehena:	Ormazabal	Ormazabal
26, asteartea:	Ormazabal	Ormazabal
27, asteazkena:	Ormazabal	Ormazabal
28, osteguna:	Ormazabal	Ormazabal
29, ostirala:	Yudego	Yudego

OKINDEGIA:


24, igandea: FOTERO

ZineA

La roca

Zuzendaria: Michael Bay
Antzezleak: Sean Connery, Nicolas Sage, Ed Harris.

Vietnam-eko heroe beterano batek EEBBen aldeko operazio ezkutuetan hil direnak errekonozitzeko eskatzen dio gobernuari. Kasurik egiten ez diotenez, Alcatraz-eko irla indarrez hartzea erabakiko du eta bertan dagoen turista talde bat bahitzen du. Gobernuak bere eskakizunak entzuten ez baditu arma kimikoak erabiltzeko prest dago. Gobernuak FBIko bi agente bidaliko ditu Alcatraz-eko bahiketa amaitzeko.



ONGARRI zine kluba

Antonia's line

Zuzendaria: Marleen Gorris
Antzezleak: Willeke Van Ammelrooy, Els Dottermans, Veerle Van Overloop.

Bigarren Mundu Gerratearen ostean, emakumeen lau belaunaldi ezberdinen bizitza isladatzen du pelikulak. Antonia, heriotzaren atarian dago eta berak ere badaki. Bere bizitzaren errebasua eginez, alaba, iloba eta bilobaren bizitzak kontaktzen dira. Lau emakume hauek nekazal herrirka batean bizi dira. Nekazal lanetan jarduten dute, ezindu psikiko bi eta apaiz batekin batera.





“Komunikazioaren kontzeptu berria”

Bai CD-ROMeko bai Internet-eko Multimedia produkzioa bi enpresa mota ezberdinek egiten dute. Batetik, Komunikazioaren arloan ezagutzarik ez dituzten informatika enpresak daude eta bestetik, teknologikoki proiektu hauek burutzeko irtenbiderik eskaintzen ez duten publizitate agentziak. DANKA multimedia Teknologi Profesionaltasuna, Komunikazioaren eta Kreatibitatearen ezagutzarekin batzen ditu.

■ Zer da DANKA multimedia?

– Multimediako Komunikazioan, Diseinuan eta Analisisan espezializatutako konpainia bat da. Enpresa, erakunde eta instituzioen Marketing, Informazio eta Formazio eremuetara zuzendua dago, bai CD-ROM bai INTERNETen bitartez.

■ Zein zerbitzu eskaintzen ditu DANKAk CD-ROMaren arloan?

– Bi zerbitzu linea dauzkagu: batetik, Sistema Formatiboak (Formazio Ikastaroak, 3Dko Simulazioak eta Ejerzitazio Programak) eta bestetik, Sistema Informatiboak (Multimedia Informazio Puntuak, Dokumentazio Elektronikoa, Enpresen Aurkezpenak eta Katalogo Interaktiboak). Argazkiak, testuak, grafikak, musika, soinua eta bideoa barne, denak euskarri informatikoan.

■ Eta INTERNETen zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

– WEB orrien diseinu eta



mantenua, ubikazioa, Internetera konexioa eta INTRANET soluzioak.

■ Zein dira gaur arte garatu dituzten produktu nagusiak?

– CD-ROMaren arloan, hauentzat egin dugu lan, besteak beste: Sasieta Mankomunitatea, ZBT, Fagor Automation eta Caja Laboral. INTERNETen Lana, Danona, Tavex Algodonera etab. entzat egin ditugu hainbat lan. Gaur egun AFMren katalogoa egiten dihardugu INTERNETen.

■ Zerk bereizten zaitue konpetenziarengandik?

– Lehendabizi, hiru urteko esperientziak ematen duen profesionaltasun teknikoak, bai eta

gure produktuen puntako diseinu eta tratamendu kreatiboak, koste konpetitiboak eta lana burutzeko epeak ere. Azken finean, gure bezeroen negozioa geurea bailitza ulertzen dugu.

■ Amaitzeko, Multimedian sartzekotan dauden enpresei zein mezu luzatuko zenieke?

– Sartzeko, poliki bada ere. Etorkizunera begiratzen duten enpresa dinamiko guztiek iadantik ezagutzen dute. Bihar-etzi, atzean geratu diren enpresek egingo dute, esperientzia faltaren desabantaila izango dutelarik.

Zure enpresan Multimedia martxan jarri nahi baduzu, DANKAn argitaratu dugun “Oinarrizko Gida” bidaliko dizugu gututz doan.



**Etorkizunari
begiratzen dioten
enpresa dinamiko
guztiek INTERNET
ezagutzen dute.**

DANKA multimedia S.L.

SAIOLAN, Loramendi kalea, 4 - 20500 ARRASATE

Tel.: 77 05 00 / 79 02 11 Faxe: 79 57 01

Pag.Web: www.danka.es · E-mail: danka@danka.es



Abendutik aurrera
are tentagarriagoak
izango gara.